

EMAKUMEAK GIZONEN MUNDUAN

2024ko martxoaren 8a

Gaurkotasun handia du gai honek. Izan ere, urteetan zehar emakumeak zailtasun handiak izan dituzte beren eskubideak aldarrikatzeko. Emakumeen figura alderatuz, iragana eta oraina asko aldatu da gaur egun.

Ezer baino lehen, berrogeita hamar urte pasa direla esan genezake emakumeen eguna ezarri zenetik. Izan ere, emakumeek beren eskubideak aldarrikatu nahi zituzten, garrantzitsuena, emakumeen bozkatzeko aukera.

Maren Meyer, Haizea García eta Iruñe Blázquez

HISTORIA:

ZERGATIK MARTXOAK 8?

Era berean, emakumeen eguna Martxoak 8 ospatzen da. 1977an, Nazio Batuen Erakundeak Emakumearen Nazioarteko Eguna izendatu zuen martxoaren 8a, emakumeen eskubideen aldeko lana aldarrikatzeko eta emantzipatzeko gizarteko hainbat esparrutan parte har dezaten sustatzeko. Errusia izan zen emakumei botoa emateko eskubidea eman zien lehen herrialdea.

1911ko martxoaren 25ean sute bat piztu zen New Yorkeko Triangle Shirtwaist ehun-fabrikari. Emakumeak besterik ez zuten lan egiten bertan. Langile asko harrapatuta geratu ziren, eta 146k bizia galdu zuten, suaren ondorioz. Fabrika hartan, kolore morea zuten oihalak egiten zituzten. Horrexegatik M8 eguna kolore morearekin lotzen dugu.

EMAKUMEEN SUFRAGIOAREN BILAKAERA

Emakumearen Egunarekin lotutako aldarrikapen historiko handienetako bat eta gizartean berdintasun handiagoa lortzeko bidean aurrera egitearen sintometako bat emakumeen botoa da.

Izan ere, Kopenhagen, 1910ean, ehunka parte-hartzaile bildu ziren Emakume Sozialisten Nazioarteko Bigarren Konferentzian (lehen 1907an izan zen), eta jardunaldi hori urtero antolatzea erabaki zuten, emakumeen sufragioaren aldeko borroka indartzeko.

Emakumeek historian lehen aldiz XIX. mendearen amaieran lortu zuten eskubide hori Zeelanda Berrian, 1893an hain zuzen ere. Hala ere, 1919ra arte kargu publiko baterako hautatuak izateko debekua mantendu zen.

ESPAINIAN

Espainian, emakumeen botoa ez zen 1933ko hauteskundeetara arte iritsi, eta 1931n onartu zen.

Aurrerapen horri buruzko eztabaidetan Clara Campoamor, Victoria Kent eta Margarita Nelken diputatuek parte hartu zuten, eta horrek agerian uzten zuen paradoxa bat zela emakumeak aukeratuak izan zitezkeela, baina ezin zutelako bozkatu.



IRAGANA ETA ORAINA

Emakumeak, antzinatean, amore eman behar zuten, ezin baitzuten inolako borrokarik hasi, garailearen saria indar fisiko handiena zuenari ematen zitzaioela ziur baitzegoen; beraz, emakumea baliogabetuta geratzen zen, emakumeak, beren etxeak garbitzen eta seme-alabei heziketa on bat eman behar zieten. Gizonezkoen mende zeuden, beraien aukeraketak gizonezkoek egiten zituzten.

Zorionez, aurrerapenerantz goaz, emakumearentzat ondo ulertutako berdintasuna lortzeko gertu gaude. Gaur egun oraindik emakume ilustratua barregarri uzten bada, denborak aurrera egin ahala, oso naturala dirudi hala izatea; garai batean emakumei irakastea debekatuta egon zen bezala, eta orain irakasle-lanetan jarduteko ahalmen handia dute.





Emakumearen Nazioarteko Egunaren alde, 40 mobilizazio baino gehiago izan dira aurten. Ugarienen artean,artzelona (40.000), Madril (30.000) edo Valentzia (20.000).



EMAKUMEAREN EGUNA


EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO LEHEN EGUNA

1908an ehungintzako langileek New Yorken egin zuten grebari babesa emateko 1857ko grebarekin batera. Historiara pasako zen greba. 1909an emakume sozialisten erakunde batek emakumeen nazioarteko eguna ospatu zuen AEBn. New Yorken eta Chicagon bakarrik jarraipena izan zuen arren, 15.000 emakume inguruk parte hartu zuten New York hiria zeharkatu zuen martxa batean.


GIZONEZKOEN IRITZIAK

Lehengo hariari jarraituz, hainbat ikastetxeetan egon gara mutilen iritziak galdetzen. Zer pentsatzen duten emakumearen egunaz, ospatu behar den, bai edo ez eta beste askok berdin zaiela esan digute. Bestalde, beste askok erantzun digute gizonen eguna ospatu beharko zela, emakumeena bezalakoa izan beharko litzatekeela. Guztira 183 gizonek erantzun digute, 12 eta 18 urte bitartekoak. Hau izan da atera den bataz bestekoa:

EMAKUMEAREN EGUNAREN OSPAKIZUNA



GIZONEN EGUNAREN OSPAKIZUNA



SUSANA CENCILLO, MUSIKARIA



Esate baterako, Susana Cencillo elkarrizketatu dugu. Susana Cencillo, Andoaingo herrian oso emakume ezaguna da. Andoaingo musika eskola eraman du urte askotan. Zorritzarez, gaur egun ez du horretan lan egiten baina, hala ere, Susanak musika munduan jarraitzen du Jesus Guridi Kontserbatorio profesionalean, Akordeoi eta Musika Ganbarako irakaslea da. Susanak, bere iritzia eman digu feminismoaren inguruan zer pentsatzen duen eta zer dakien partekatu digu. Musikaren zaletasuna, gizonaen jarduera bat zela zioten denek. Susanak adierazi nahi izan digu berak ez zuela inongo beldurrik izan eta bere ametsi jarraitzea erabaki zuen, musika munduan lan egitea.

- **Beti esan da musika gizonen kontua zela: Zaila izan da zuretzat mundu horretan murgiltzea eta are gehiago emakume gisa? Zernolako zailtasunak izan dituzu?**

Nik, ordea, ez nuen inolako zailtasunik izan emakume bezala murgiltzeko; are gehiago, ni emakume bakarra nintzenez, gehiago integratzen lagundu zidaten. Baina, horrek ez du esan nahi, kasu batzuk ikusi ditudanik, gizonaen emakumea arbuia egin dutela ikusi dut, eta, are gehiago, emakumeak ezin izan duela lan egin bere gustuko zerbaitean.

- **Noizbait, zure bizitzan edo lanean, gutxietxi zaituzte generoarekiko, emakume izatearekiko?**

Egia esan, espero nuena baino askoz hobeto ikusita gaude emakumeak. Nire bizitzan, ez dut iruzkin matxistarik jaso, baina nabari dut beti gizonaen hartzen dietela edozer gauza egiteko, ni, bigarren aukera gisa naute. Beste erakusketa mota batzuetan, emakumearen aurpegia jarri nahi dutenez ni bidaltzen naute, emakumearen eguna dugu eredu.



AURTENGO PROGRAMA

- **Andoaingo musika-eskola eraman duzu urte askotan: nesken eta mutilen artean alde handia dago instrumentuak aukeratzean?**

Bai, desberdintasuna dago. Gaur egun, neskek musika munduan parte hartzen dutela argi dugu denek baina, egia esan, neskek askotan pianoa edo biolina bezalako instrumentuak jotzen dituzte. Era berean, geroz eta mutil gutxiago animatzen dira, dogoeneko, jende askok eman du izena baina, batez ere, neskek. Egia esan, musika, nesken artean nabarmendu den gauza bat da.

- **Feministatzat duzu zeure burua?**

Bai, nire ustez, asko aurreratu dugu emakumeen aurrerapenarekin, baina oraindik ere uste dut lan handia egin behar dugula emakumeok gizonen eskubide berberak izan ditzugun.



MARTXOAK 6, ASTEAZKENA
MURAL MARGOKETA PINTADO DE MURAL
17:30 Gasteia Leialde

ERAKUSKETA PARTE-HARTZARLEA
EXPOSICIÓN PARTICIPATIVA
Zaila izanaraz ber? A tu alabedat? (2024)
Nabarek egunkariarekin konturatu den dizuten baliabideen azterketa, irakurketa eta iruzkinak (guztira 1000 eta 1500 abarmentan) eta su dago aila.
17:30 Gasteia Leialde

MARTXOAK 7, OSTEAGUNA
KULTURARTENOKI SOKALDARITZA LANTEGIA
TALLER DE COCINA INTERCULTURAL
17:30 Gasteia Leialde

ZINEA-DOKUMENTALA CINE-DOCUMENTAL
Arrasa bitortan (Tentadoa)
18:00 Raskara kullangana (seulkarria)
18:30 Arrasa bitortan (Tentadoa)

MARTXOAK 8, OSTIRALA
TXAPA LANTEGIA TALLER DE CHAPAS
17:00 Gasteia Leialde

AUTODEFENSA IKASTAROA CURSO DE AUTODEFENSA
17:30 Gasteia Leialde

MANIFESTAZIOA MANIFESTACIÓN
18:30 Gasteia Leialde
19:00 Gasteia Leialde

MUSIKA MÚSICA
MATE ARROSA TALEA (2x dogu cor azer)
20:30 Gasteia Leialde

EMAKUMEEN AFARIA CENA DE MUJERES
20:30 Gasteia Leialde